


LURRA GAIXO?



Kaixo, **AMA LURRA** naiz; beti oso zoriontsu izan naiz nire lagun **EGUZKIAK** argia eta beroa neurrian ematen didalako. Baina orain triste nago gizakiak hainbeste **makina, kotxe eta lantegiekin** airea zikintzen ari da eta horregatik bero handiagoa egiten du. Nire temperatura igotzen ari da eta sukarra dudala ematen du. Sukarrak landareak, animaliak eta pertsonak kaltetzen ditu. Temperaturak igotzen jarraitzen badu nik gaixotasun ugari izango ditut.

Hainbeste auto, hegazkin, motorren erabilerak lurra gaixotzen du eta lurraren osasunean eragina du. Arazo hau aztertzeko ama edo aitari galdera batzuk egingo dizkiozue orokorrean gure bizitzan mugikortasun ohiturak zein diren jakiteko.



LURRA GAIXO?

Osa ezazu ondorengo koadroa erantzunak gurutzatuz:

NOLA MUGITZEN ZARA?

	LANERA	ESKOLARA	EROSKETAK EGITERA	LIBURU- TEGIRA	POLIKIROL- DEGIRA
OINEZ					
BIZIKLETAN					
AUTOAN					
HERRIKO URBANOAN					
GARRAIO PUBLIKOAN					
MOTORREZ					
TAXIAN					

Ohitura onak ditugunean **Berdez** margotuko dugu taula.

Hobetu behar dugu: **Laranja**

Ohitura txarrak: **Gorria**

Galderak erantzun ondoren, eta eman dizkizuen erantzun desberdinen kopuruaren arabera, emaitza bat edo beste topa dezakezue.

Garraio egokia **berdea** 1 puntu
Hobetu behar dugu **laranja** 5 puntu
Garraio desegokia **gorria** 10 puntu

Guztion emaitzak elkartu ondoren, ondorioak atera itzazue eta aipagarrienak komentatu
1-14 **Berde** 15-22 **Laranja** 23-30 **Gorria**

Goazen Azpeitiko kaleen egoera aztertzerara. Horretarako herriko kaleak behatuko dituzue ondorengo galderak erantzunez:

Kalearen izena: _____

Kale asko gurutzatu behar dituzu eskolara iristeko? Bai Ez

Bide-gurutze horietan semafororik ba al dago? Bai Ez

Arriskutsuak direla iruditzen zaizu? Bai Ez

Nolakoa da kale horietako trafikoa?

Auto asko dago Ez dago auto gehiegirik Auto gutxi dago

LURRA GAIXO?



Herrian zehar paseatzen kaleetako behaketa egingo duzue:

Osa ezazu ondorengo koadroa: (margotu)	BAI	EZ	KALEA
ZIRKULAZIO ESKASA			
BIDEAK ZULOAK/ PUTZUAK			
PERTSONA ASKO			
ZABORRAK			
ZARATA			
ESPAZIO ZABALAK			
ESPALOIETAN JOLASTEN			
ZEBRA BIDERIK GABE PASATZEN			
ALDAPA			
GAIZKI APARKATUTA			
AUTO ASKO			
BIDEGORRIAK			
BIZIKLETAKIN ESPALOIETAN			
ZEBRA BIDEAN GURUTZATZEN			
BIDEA ONDO ZAINDUTA			

Nola aurkitu dituzue kaleak? Garbiak Zikinak

Zer aurkitu duzu egoera onean?

Zer zegoen puskatuta?

Zeozar bota duzu faltan? Bai Ez Zer?

Ba al dago bidegorririk? Bai Ez

Asko Nahiko Gutxi Lotuta Loturarik gabe

Nolakoa da bere egoera? Ona Txarra Tartekoa

LURRA GAIXO?

Zer egin beharko zenuke lurra gaixorik ez izateko?

.....


.....

.....



Behaketa egin ondoren emaitzen konparaketa gelan azaldu beharko duzue. Gelan erantzunen arabera sortuko duzue hormirudi bat termometroekin osatuz.

Alde onak= termometroa **urdinez** margotuko duzue
Alde txarrak= termometroa **gorriz** margotuko duzue



Zein koloreetako termometroa nagusitzen da?

Zein ondorio atera dituzue?

Jaso dituzuen datuekin, aurrera begira, zerbait egin al dezake UDALAK egoera hobetzeko?

Orain dela urte gutxi batzuk zuek bezela Lehen zikloan zeuden ikasleak **MUGIKORTASUNA** gaia landu zuten eta gai honekin lotuta konpromiso batzuk hartu zituzten eta Udalari proposamen batzuk luzatu.

Konpromiso horiek zerrendatuta dituzue. Ea betetzen dituzuen ala ez berrikusi beharko duzue.

- **Kotxearen orde, garraio publikoa erabiltzea.**
- **Zebra-bideak eta bidegorriak errespetatzea eta erabiltzea.**
- **Seinaleak eta semaforoak errespetatzea.**
- **Etxean, parkeetan eta jolastokietan zarata gutxiago ateratzen saiatuko gara.**

ZUEK horrelako zerbait egiten duzue?